Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko ekainaren 26a, ostirala — 120 — Viernes, a 26 de junio de 2015

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZKOITIKO UDALA

*Iragarkia*

Gobernuz kanpoko erakunde edo instituzioei diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarrien Ordenantza erregulatzailearen aldaketaren jendaurreko informazioko legezko epea igaro ondoren, erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez denez, ondoko testuaren arabera behin betiko onartu da:

*Gobernuz kanpoko erakunde edo instituzioei diru-laguntzak emateko deialdia arautuko dituzten oinarriak.*

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da Gobernuz Kanpoko Erakundeei jarraian aipatzen diren programak garatzeko diru-laguntzak emateko deialdia arautzea:

— Garapen bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozial, ekonomiko eta kulturalak hobetzeko helburua duten programak.

— Goian aipatutako herrialdeetako errealitatearekiko eta egoera hori sortzen duten arrazoiekiko Azkoitiko herritarren interesa sortzera zuzendutako ekintzak egitea.

*2. Laguntzetarako diru izendapena edo finantzatzioa.*

Gobernuz kanpoko erakunde edo instituzioei diru-laguntzak finantzatzeko dirubaliabideak Azkoitiko udalaren Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako ezarritako aurrekontu-kredituak erabiliko dira.Emandako laguntza guztien batura ezingo izan horretarako onartutako aurrekontu-partida baina handiagoa.

*3. Eskabideak.*

Legez eratuta dauden eta irabazi asmorik gabekoak diren Gobernuz Kanpoko Erakundeek eska dezakete diru-laguntza. Beren ekintzek deialdi honen xedearekin bat egin behar dute eta Euskal Autonomi Erkidegoan edo Nafarroan erroldatuak egon behar dira, eta egoitza soziala, ordezkaritza bat edo administrazio-egitura iraunkor bat Azkoitian edo Urolan izan beharko dute.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira Estatu, Administrazio Autonomo, Foru Aldundi eta Aurrezki Entitateren baten menpeko erakundeak.

Parte hartzen duen GKE bakoitzak, proiektu bakar bat aurkez dezake arlo bakoitzerako (sentsibilizaziorako bat eta lankidetzarako beste bat).

*4. Erakunde eskatzaileek bete beharreko baldintzak.*

Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, honako baldintzak bete beharko ditu erakundeak, instituzioak edo elkarteak:

a) Legez eratutako Gobernuz Kanpoko Erakunde edo Instituzio bat izatea, irabazpide asmorik gabekoa, eta ez egotea Estatuaren menpe, ez Administrazio Autonomoaren menpe, ez Foru Aldundiaren menpe ez eta aurrezki-entitateen menpe ere,

## AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Anuncio*

Habiendo finalizado el plazo de información pública de la Ordenanza reguladora de las bases por las que se establece la concesión de subvenciones a organizaciones o entes no gubernamentales, sin que se haya presentado reclamación alguna, se considera aprobado definitivamente según el siguiente texto:

*Bases reguladoras de la convocatoria de concesión de subvenciones a organizaciones o instituciones no gubernamentales.*

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases regular la concesión de ayudas económicas a Organizaciones No Gubernamentales para el desarrollo de los programas que a continuación se señalan:

— Programas destinados a la mejora de las condiciones sociales, económicas y culturales de la población en países en vías de desarrollo.

— Actuaciones destinadas a promover el interés de la población de Azkoitia respecto a la realidad de estos países y las causas que originan dicha situación.

*2. Cantidad destinada a subvenciones o su financiación.*

La financiacion de las cantidades destinadas para la concesion de ayudas económicas a organizaciones No Gubermanentales para el desarrollo de programas serán financiadas a traves de las partidas presupuetarias establecidas para tal fin en el Presupuesto general del Ayuntamiento sin poder sobrepasar el importe total de las subvenciones concedidas a los importes asignados a dicho programa.

*3. Solicitudes.*

Podrán solicitar subvención las Organizaciones o Instituciones No Gubernamentales legalmente constituidas, sin ánimo de lucro, cuyas actividades coincidan con el objeto de esta convocatoria, que estén inscritas en la Comunidad Autónoma Vasca o Navarra y que tengan enar Azkoitia o Urola su sede social, una delegación o una estructura administrativa permanente.

Quedan excluidas de esta convocatoria las instituciones dependientes del Estado, de la Administración Autónoma, de la Diputación Foral y de las entidades de ahorro.

Cada ONG participante podrá presentar un único proyecto por cada modalidad de actuación (uno para sensibilización y uno para cooperación).

*4. Requisitos de las entidades solicitantes.*

Para que la organización, institución o asociación solicitante tenga acceso a las subvenciones de esta convocatoria deberá reunir las siguientes condiciones:

a) Ser una Organización o Institución No Gubernamental legalmente constituida, sin ánimo de lucro y que no dependa del Estado, de la Administración Autónoma, de la Diputación Foral ni de entidades de ahorro; así mismo, que sus actividades

EK\CV GAO-I-2015-06003

eta bere ekin-tzak deialdi honetan zehaztutakoekin bat etortzea, eta, azkenik, egoitza soziala, ordezkaritza bat edo administrazio-egitura iraunkor bat Azkoitia edo Urolan izatea.

b) Garapenerako eta lankidetzarako ekintzak antolatzen esperientzia izatea baloratuko da. Horiek egiaztatzeko, aurreko urteetan zehar egindako ekintzak eta jasotako diru-laguntzak aurkeztuko dira.

c) Diruz lagunduko diren ekintzak aurrera eramateko gaitasuna izatea. Erakundeak ondorengoak adierazi beharko ditu, inprimaki ereduari jarraituz:

— GKE ari dagozkion datuak.

— Garapen bidean dagoen herriko erakundearekin duten harremana.

d) azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitakoaren arabera, diru-laguntza jaso ezin izateko kausetako batean ez egotea.

Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotakoak kontuan hartuta, honako egoera batean ezingo dira diru-laguntza hauen onuradun izan:

— Kideak aukeratzeko prozesuan sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeak.

— Emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopa-tzen duten jarduerak antolatzen dituzten elkarteak.

— Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran.

5. *Proiektuak baloratzeko irizpideak.*

Diru-laguntzak banatzeko orduan, aurkeztutako ekintzak baloratzeko ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

A. Udalerrian bertan egingo diren sentsibilizazio ekintzetarako:

a) Proposatutako ekintzek bideragarritasuna bermaturik izatea. Horretarako, helburuak, zehaztutako aurrekontua eta ekintzak antolatzen erabiltzen diren bitarteko eta baliabide ekonomikoak eta perstonalak baloratuko dira, eta gehienez ere 5,00 puntu lortu ahal izango dira.

b) Ekintzak komunitate osoa inplikatuko duten programen barruan egitea: Gehienez ere 4,00 puntu lortu ahal izango dira.

c) Genero ikuspegia txertatzea: Garatzen den egitarauak emakume eta gizonen berdintasuna helburu izatea eta berdintasuna sustatzeko neurriak aurreikustea (emakumeen parteharrzea sustatzeko, sexuaren araberako estereotipoak gaindizeko, bateragarritasuna eta erantzukidetasuna errazteko, etab.): Gehienez 1 puntu lortu ahal izango dira.

Hala ere, Udalak ekintzak bideragarriak ez direla joko balu, ez litzateke gainontzeko alderdiak baloratzen hasiko.

Banaketatik kanpo geldituko dira, halaber, gutxienez 5 puntu lortzen ez duten eskaerak.

B. Garapen bidean dauden herrialdeetan burututko diren lankidetza-ekintzetarako, honako irizpideak erabiliko dira:

a) Proposatutako ekintzek bideragarritasuna bermaturik izatea gehienez ere 5,50 punturekin baloratuko da eta honakoak hartuko dira kontuan:

a.1) Kontuan hartuko dira lortu nahi diren helburuak, biztanlego harzailea, onuradunen kopurua, eta proiektua egin behar den lekuan erakundeak dituen bitarteko tekniko, pertso-

coincidan con el objeto de esta convocatoria y, finalmente, que tenga en Azkoitia o Urola su sede social, una delegación o una estructura administrativa permanente.

b) Se valorara contar con experiencia en acciones de cooperación y desarrollo. A fin de acreditar la misma, se indicarán las acciones realizadas durante los años anteriores, así como las subvenciones recibidas.

c) Tener capacidad para llevar a cabo las acciones subvencionadas. Las organizaciones deberán indicar, siguiendo el modelo del impreso:

— Los datos referentes a la ONG.

— La relación que mantienen con la contraparte local del país en vías de desarrollo.

d) No estar incursa en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones previstas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre.

Por otro lado, considerando lo establecido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, no podrán beneficiarse de estas ayudas:

— Las asociaciones u organizaciones que incurran en discriminación por razón de sexo en el proceso de selección de personas candidatas.

— Las asociaciones organizadoras de actividades en las que se impida o dificulte la participación de las mujeres en igualdad respecto de los hombres.

— Las personas físicas o jurídicas con sanción administrativa o penal por haber incurrido en discriminación por razón de sexo, durante la vigencia de dicha sanción.

5. *Criterios de valoración de los proyectos.*

La distribución de las subvenciones tendrá en cuenta los siguientes criterios de valoración de las acciones presentadas:

A. Para las acciones de sensibilización desarrolladas en el propio municipio:

a) Que las acciones propuestas tengan garantizada su viabilidad. Para ello se valorarán los objetivos, el presupuesto detallado y los medios y recursos económicos y humanos implicados en la organización y desarrollo de la actividad, con 5,00 puntos como máximo.

b) Que se realicen en el marco de programas que impliquen a toda la comunidad, con 4,00 puntos como máximo.

c) Incluir la perspectiva de género: Que el programa a desarrollar tenga como finalidad la igualdad de mujeres y hombres y prevea medidas que fomenten la igualdad (para fomentar la participación de las mujeres, superar los estereotipos de género, facilitar la compatibilidad y corresponsabilidad, etc.), con 1 punto como máximo.

No obstante, si el Ayuntamiento entiende que no está garantizada la viabilidad, no se pasará a valorar el resto de los aspectos. Será condicion indispensable que las solicitudes de presenten en euskera.

También quedarán excluidas del reparto aquellas solicitudes que no obtengan al menos 5 puntos.

B. Para las acciones de cooperación que se realizarán en los países en vías de desarrollo se aplicarán los siguientes criterios:

a) Que las acciones propuestas tengan garantizada su viabilidad, se valorarán como máximo con 5,50 puntos, y se tendrá en cuenta lo siguiente:

a.1) Se tendrán en cuenta los objetivos que se pretendan alcanzar, la población destinataria, el número de beneficiarios y los medios técnicos, personales y materiales con que se cuenta

EK\CV GAO-I-2015-06003

nal eta materialak, bai eta, giza-baliabideen organigrama eta proiektuaren egutegia ere.

a.2) Halaber begiratuko zaie proiektua aurrera eramateko aurkeztutako aurrekontuari, erakundeak berak jarriko duen finantziazioari, eta proiektua burutu ahal izateko gutxieneko aurrekontuari.

a.3) Kontuan izango da ea proiektuak beste finantzaketabide batzuk dituen edo aurreikusten diren –publiko nahiz pribatuak–. (Zinpeko aitorpenaren bidez).

a.4) Garapenerako eta lankidetzarako ekintzak antolatzen esperientzia izatea.Hori egiaztatzeko, aurreko urteetan zehar egindako ekintzak eta jasotako diru-laguntzak aurkeztuko dira.

Urteko experientzia, urteko 0,25 puntu.Gehiengo puntuazio arlo honetan puntu bat.

b) Proiektuak ondorengo helburu bat edo gehiago betetzea ekarriko balu, baloratu egingo da gehienez ere 4,50 punturekin:

b.1) Komunitateak berak egindako eskariak izatea.

b.2) Komunitateko kideen partaidetza aktiboa bultzatzea.

b.3) Komunitate onuradunaren kideak prestatzea.

b.4) Tokiko aberastasun naturala eta balore ekologikoak errespetatu eta bultzatzea.

b.5) Eragindako komunitatearen kultura, identitatea eta balore etnikoak sustatzea eta babestea.

b.6) Proiektu iraunkorra izatea, hau da, diru-laguntza agortutakoan proiektuaren helburuak finkatuta gelditzea, kanpoko laguntzarik gabe.

b.7) Gizarte egoera ahulena daukaten sektoreengan izatea eragina.

b.8) Emakumeek bultzatutako edo/eta emakumearen egoera hobetzeko proiektuak izatea.

c) Genero ikuspegia txertatzea: Garatzen den egitarauak emakume eta gizonen berdintasuna helburu izatea eta berdintasuna sustatzeko neurriak aurreikustea (emakumeen partehartzea sustatzeko, sexuaren araberako estereotipoak gainditzeko, bateragarritasuna eta erantzukidetasuna errazteko, etab.) gehienez era 1 punturekin baloratuko da.

d) Eskabidearen aurkezpena euskeraz aurkeztea ezin bestekoa izango da.

Banaketatik kanpo geldituko dira, halaber, gutxienez 5 puntu lortzen ez duten eskaerak.

Sentsibilizazio zein lankidetza proiektuetan, aipatutako puntuak kontuan edukitzea baloratuko dira.

Lehiaketan parte hartzeko baldintzak betetzen dituen erakunde eskatzaile bakoitzarekin elkarrizketa bat egitea erabaki dezake Udalak, aurkeztutako proiektua defenda dezaten.

Diru-laguntzak banatzeko orduan, kontuan hartuko dira onartutako aurrekontua, proiektu bakoitzak lortutako puntuazioa eta GKE horrek Udalari eskatutako diru-laguntza.

*6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Ekintza mota bietarako.*

Eskaerak, oinarri hauetan azaltzen den inprimaki-ereduari jarraituz aurkeztu beharko dira, eta bertan agertzen diren zati guztiak osatu beharko dira.

Eskabidearen inprimakiarekin batera honako agiriak aurkeztuko dira:

en el lugar donde se va a desarrollar el proyecto. Así mismo, se tendrá en cuenta el organigrama de los recursos humanos y el calendario del proyecto.

a.2) Se considerará el presupuesto presentado para la realización del proyecto, la financiación que aporta la entidad y el presupuesto mínimo necesario para poder realizar el proyecto.

a.3) Se tendrá en cuenta que el proyecto haya obtenido y/o se prevea la posibilidad de obtener cofinanciación pública o privada. (Bajo declaración jurada).

a.4) La experiencia en acciones de cooperación y desarrollo. A fin de acreditar la misma, se indicarán las acciones realizadas durante los años anteriores, así como las subvenciones recibidas.

La experiencia se valorara con 0,25 puntos por año con una puntuacion máxima de 1 punto en este apartado.

b) Se valorarán los proyectos que impliquen el cumplimiento de uno o más de los siguientes objetivos, con 4,50 puntos como máximo:

b.1) Contar con demandas surgidas de la comunidad misma.

b.2) Fomentar una participación activa de los miembros de la comunidad.

b.3) Formar a los miembros de la comunidad beneficiaria.

b.4) Respetar y promover la riqueza natural y los valores ecológicos locales.

b.5) Promover y proteger la cultura, identidad y valores étnicos de la comunidad afectada.

b.6) Ser un proyecto sostenible, esto es, que una vez agotada la subvención los objetivos del proyecto queden establecidos sin ayuda exterior.

b.7) Incidir sobre los sectores socialmente más débiles.

b.8) Ser proyectos impulsados por mujeres y/o de mejora de su situación.

c) Incluir la perspectiva de género: Que el programa a desarrollar tenga como finalidad la igualdad de mujeres y hombres y prevea medidas que fomenten la igualdad (para fomentar la participación de las mujeres, superar los estereotipos de género, facilitar la compatibilidad y corresponsabilidad, etc.) Hasta 1 punto.

d) Las solicitudes se presentaran al menos en euskera.

Quedarán excluidas del reparto aquellas solicitudes que no obtengan al menos 5 puntos.

Tanto en los proyectos de sensibilización como en los de cooperación se valorarán los puntos señalados.

El Ayuntamiento podrá resolver realizar una entrevista con cada entidad solicitante que reúna los requisitos exigidos para la participación en el concurso, con objeto de que defiendan el proyecto presentado.

Las subvenciones se distribuirán en función del presupuesto aprobado, las puntuaciones obtenidas por cada uno de los proyectos y de la subvención solicitada por la ONG al Ayuntamiento.

*6. Documentación a presentar. Para los dos tipos de acciones.*

Las solicitudes deberán de presentarse conforme al modelo de solicitud que se adjunta a estas bases, debiendo cumplimentarse todos y cada uno de los apartados que se indican en el mismo.

Junto con la solicitud se deberá presentar:

EK\CV GAO-I-2015-06003

a) Elkarte hori Elkarteen Erroldan irabazi asmorik gabeko erakunde gisa inskribatuta dagoela ziurtatzen duen agiria.

b) Elkartearen legezko ordezkariaren Ahalmen Notarialaren kopia edo eskaera sin-tzen duenak erakundearen barruan duen kargua ziurtatzeko Elkarteen Erroldak egiten duen agiria.

c) Estatutuen kopia.

d) Eskabidearen aurreneko urteko lan burututako jarduerei buruzko memoria: Burututako ekintzak, Parte-hartzaile kopurua, Parte hartzearen maila, Interesgarria izan den ala ez, Erabilitako bitartekoak eta materialak, eta Balantze ekonomikoa.

e) Udal honetan aurkeztutako proiekturako beste erakunde edo instituzio batzuei egin zaizkien diru-laguntza eskaeren berri eta jadanik eskuratu dituzten beste diru-laguntzen berri ematen duen zinpeko aitorpena.

f) Zerga-alorreko betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiazta-tzeko ziurtagiriak.

g) azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluak 2. eta 3. ataletan adierazitakoaren arabera, diru-laguntza jaso ezin izateko kasuetako batean ez dagoela adierazten duen zinpeko aitorpena.

h) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak adierazitako diru-lagu-tzak jasotzeko debeku-kasuen pean ez dagoela dioen zinpeko aitorpena.

Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileek oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete-betean onartzen dituztela.

Ez da beste dokumentazio-motarik onartuko.

Goian adierazitako a, b eta c puntuetako agirietako batzuk jadanik Azkoitiko Udalaren esku egongo balira, diru-laguntzaren eskatzaileak ez dauka dokumentu horiek aurkeztu beharrik, betiere eskabide orrian dokumentu horiek noiz eta non (organoa edo bulegoa) aurkeztu ziren adierazten bada, eta hori gertatu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

Hala ere, agiriak eskuratzerik ez balego, eskumena duen organoak agiriok aurkezteko eskatu ahal izango dio eskatzaileari, betiere ebazpenaren proposamena egin aurretik.

*7. Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara, aurkeztu ahal izango dira Azkoitiko Udalaren Erregistro Orokorrean. Horretarako 30 egun natural egongo dira, oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Eskaerak aurkezteko azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna balitz, epea ondorengo laneguneko 13:00ak arte luzatuko da.

*8. Erabakia.*

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, eskaerak Udalaren Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak aztertuko ditu, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hura aurkezteko.

10 eguneko epe hori amaitu eta agiria aurkeztuko ez balu, zuzenean baztertuta geratuko da diru-laguntza eskaera.

Azkenik, txosten teknikoa egin ondoren, Udalaren Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak diru-laguntzak emateko proposamena Alkateari edo berak delegatutako organoari bidaliko dio, erabakia har dezan.

a) Certificado acreditativo de la inscripción de la asociación en el Registro de Asociaciones como entidad sin ánimo de lucro.

b) Copia del poder notarial del representante legal de la asociación o certificado del Registro de Asociaciones en el que se acredite el cargo que ostenta el firmante de la solicitud dentro de la entidad.

c) Copia de los Estatutos.

d) Memoria de las actividades desarrolladas durante el el año anterior a la solicitud: Actividades efectuadas, número de participantes, nivel de participación, valoración del interés, medios y materiales empleados, y balance económico.

e) Declaración jurada sobre las solicitudes de subvención formuladas ante instituciones, organismos, etc. o, en su caso, de las que estuvieran otorgadas, para el proyecto presentado ante este Ayuntamiento.

f) Certificados acreditativos de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

g) Declaración jurada de no estar incursa en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones previstas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre.

h) Declaración jurada de no estar incursa en ninguna de las causas de prohibición para obtención de subvenciones, de acuerdo con lo establecido por la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

La presentación de la solicitud implica, para los solicitantes, la total aceptación de las condiciones establecidas en las presentes bases.

No se admitirá otro tipo de documentación.

En el caso de que alguno de los documentos exigidos en los puntos a, b, y c ya estuviera en poder del Ayuntamiento de Azkoitia quien solicite la subvención podrá no presentar dichos documentos siempre que haga constar en la solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados y no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan.

No obstante, en los supuestos de imposibilidad material de obtener el documento, el órgano competente podrá requerir su presentación con anterioridad a la formulación de la propuesta de resolución.

*7. Plazo de presentación de las solicitudes.*

Las solicitudes se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento de Azkoitia de lunes a viernes, de 9:00 a 13:00 horas en un plazo de 30 días naturales, contados a partir del siguiente a la publicación de estas bases en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

Si el plazo de presentación de solicitudes finaliza en sábado, domingo o festivo, se entenderá que el mismo finaliza a las 13:00 horas del siguiente día hábil.

*8. Resolución.*

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, éstas serán examinadas por la Comisión Informativa Municipal de Servicios Sociales, y si se constatase que falta algún documento, se dará un plazo de 10 días para subsanarlo.

Expirado dicho plazo, en caso de que no se haya aportado la documentación requerida, la solicitud de subvención quedará directamente excluida.

Por último, previo informe técnico del área, la Comisión Informativa Municipal de Servicios Sociales elevará la propuesta de concesión de subvenciones al alcalde u órgano en quien delegue a fin de que las resuelva.

EK\CV GAO-I-2015-06003

Erabakia hartzeko hiru hilabeteko epea izango du gehienez, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunetik aurrera.

Epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean berariazko erabakirik hartuko ez balu, eskaera ez dela onartu ulertu beharko litzateke.

Erabakiaren proposamena formulatu aurretik, Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du Batzorde Informatzailearen bitartez.

9. *Onuradunaren betebeharrak.*

Honakoak dira onuradunaren betebeharrak:

a) Diru-laguntzaren oinarri diren jarduerak egin edo/eta helburuak betetzea.

b) Azkoitiko Udalaren aurrean justifikatzea diru-laguntza ematearen edo erabiltzearen helburua eta ekintzak betetzen direla, bai eta ekintza horiek burutzeko baldintzak eta betekizunak betetzen direla ere.

c) Ekintzak betetzen ari direla frogatzeko, Udalak egin ditzakeen jarduketak onartzea.

d) Diruz lagundutako jarduera berengatik beste diru-laguntzaren bat jasoko balitz, horren berri ematea Azkioitiko Udalari.

Beste diru-laguntza hori jasoko dela jakin bezain laster jakinarazi beharko zaio Udalari eta, edozein kasutan, Udaletik jasotako fondoen erabilera justifikatu aurretik.

e) Udalarekin hitzarmena sinatzea.

Emandako diru-laguntzaren jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean sinatu beharko da hitzarmena.

Hilabeteko epe hori igarota, diru-laguntzaren onuradunari lepora dakiokeen arrazoiren batengatik hitzarmena sinatuko ez balitz, erakundeak diru-laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

Hitzarmen horretan alde bien eskubideak eta betebeharrak egongo dira jasota, bai eta diru-laguntza ordaintzeko era, jarduera nola burutuko den, egindako jarduerei buruzko txostenak eta memoriak aurkeztean bete beharrekoak, eta gutxi gorabehera jarduerak noiz hasi eta noiz bukatuko diren.

f) Hurrengo urteko abenduaren 31 baino lehen honako agiriak aurkeztea:

— Egindako jardueren memoria.

— Gastu eta sarreren balantzea.

— Egindako gastuen faktura edo fotokopia konpultsatuak.

— Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean beteta dituela egiaztatzeko ziurtagiriak.

g) Jasotako diruaren erabilerari buruzko egiaztagiriak gutxienez bost urtez gordetzea.

h) Diruz lagundutako jardueraren informazio, publizitate eta propaganda guztietan Azkoitiko Udalaren lankidetza agerraraziko da.

i) Jardueren inguruko informazio, publizitate eta propaganda guztietan, eta baita jardueren garapenean bertan ere, irudi eta hizkera sexistaren erabilera ekiditea, eta helburu gisa jartzea sexuaren araberako estereotipoak gainditzea.

j) Emakumeen presentzia eta parte-hartzea elkartearen eremu guztietan ahalbidetzea (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean, etab.).

k) Euskararen erabileraren inguruan, Udalak markatutako irizpideak bete beharko dira.

El tema deberá resolverse en un plazo máximo de tres meses desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Si transcurrido el plazo citado, el Ayuntamiento no hubiese dictado resolución expresa sobre alguna solicitud, se entenderá que la misma ha sido desestimada.

El Ayuntamiento a través de la Comisión Informativa podrá requerir antes de la formulación de la propuesta de resolución cuanta información complementaria estime necesaria.

9. *Obligaciones del beneficiario.*

Son obligaciones del beneficiario:

a) Realizar las actividades y/o cumplir los objetivos que fundamentan la concesión de la subvención.

b) Justificar ante el Ayuntamiento de Azkoitia el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Someterse a las actuaciones que pueda efectuar el Ayuntamiento para comprobar que las actividades se están desarrollando.

d) Comunicar al Ayuntamiento de Azkoitia la obtención de otras subvenciones que financien las actividades subvencionadas por éste.

Esta comunicación deberá hacerse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos desde el Ayuntamiento.

e) Firmar el convenio con el Ayuntamiento.

El convenio deberá firmarse en el plazo de un mes desde la notificación de la concesión de la ayuda.

En caso de que, transcurrido ese mes, no se firmara el convenio por causas imputables al adjudicatario de la subvención, se entenderá que la organización rechaza la ayuda concedida.

En dicho convenio se recogerán los derechos y obligaciones de ambas partes, la forma de pago de la subvención, el modo de desarrollar la actividad, las obligaciones respecto a la emisión de informes y memorias de las actividades realizadas y la previsión del inicio y del fin de la actividad.

f) Presentar antes del 31 de diciembre del año siguiente la siguiente documentación:

— Memoria de las actividades realizadas.

— Balance de gastos e ingresos.

— Facturas de los gastos realizados o fotocopias compulsadas de las mismas.

— Certificado de estar al corriente de las obligaciones respecto a Hacienda y la Seguridad Social.

g) Guardar durante al menos cinco años los documentos acreditativos del destino dado a los fondos recibidos.

h) En toda información, publicidad y propaganda relativas a la actividad subvencionada se hará constar la colaboración del Ayuntamiento de Azkoitia.

i) Se utilizará una imagen y lenguaje no sexista en todas las acciones de información, publicidad y propaganda de las actividades, así como en el desarrollo de las actividades subvencionadas. Así mismo, se fijará como objetivo superar los estereotipos de género.

j) Se posibilitará la presencia y participación de las mujeres en todos los ámbitos de la asociación (en la directiva, entre las personas asociadas, entre las personas usuarias, etc.).

k) En relación con el uso del euskera, se deberán cumplir las directrices marcadas por el Ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2015-06003

*10. Ekintzaren justifikazioa.*

Laguntza ekonomikoa jaso ondoren, erakunde onuradunek ondorengo agiri hauek aurkeztu beharko dizkiote Udalari.

a) Garapen bidean dauden herrialdeetan egin beharreko lankidetza ekintzetarako honako hauek aurkeztu beharko dira derrigorrez:

1. Programa burutzeaz arduratuko den pertsonari egindako diru transferentziaren ziurtagiria.

2. Burututako programa edo jardueraren memoria zehatza eta bertan genero inpaktua azaltzea.

3. Diruz lagundutako gastuaren ziurtagirien orijinalak edo fotokopia konpultsatuak, edo gastu horri buruzko zinpeko deklarazioa.

* 1 puntuan aipatutakoa diru-laguntza jasotzen denetik gehienez ere 2 hilabeteko epean justifikatuko da.

* 2 eta 3 puntuetan aipatutakoa, berriz, hurrengo urteko abenduaren 31 baino lehen.

b) Garapen bidean dauden herrialdeetako errealitatearekiko hemengo bizilagunen interesa piztea helburu duten sentsibilizazio ekintzetarako, hurrengo urteko abenduaren 31 baino lehen honako agiriak aurkeztuko dira:

— Egindako programa edo ekintzaren memoria zehatza, genero inpaktua ere azalduz.

— Diruz lagundutako gastuaren ziurtagirien orijinalak edo fotokopia konpultsatuak.

*11. Diru-laguntzen konkurrentzia.*

Udalak emandako diru-laguntza bateragarria da helburu bera lortzeko jasotako beste edozein diru-laguntzarekin.

Hala ere, diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da izan, beste diru-laguntza batzuekin batera zein bakarrik, diruz lagunduko den jardueraren kostua baino handiagoa.

Bestalde, diru-laguntza ezingo da izan diruz lagunduko den proiekturako zehaztutako aurrekontuaren %50 a baino gehiago.

Gainfinantzazioaren kasuan onuradunak dirua itzultzeko betebeharra du porzentaia berdinean.

*12. Diru-laguntzaren ordainketa.*

Ordainketa, honela egingo da:

— Diru-laguntzaren %50, hitzarmena izenpetzerakoan,

— eta beste %50 diruz lagundutako gastuen agiriak aurkezterakoan.

*13. Diru-laguntza aldatzea.*

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

*14. Diru-laguntza ezeztatzea.*

Honako kasu hauetan diru-laguntza berrikusi egin beharko da eta, hala badagokio, ezeztatu:

a) Diru-laguntza beharrezko baldinttzak bete gabe jaso izana.

b) Diru-laguntzaren helburua ez betetzea.

*15. Hartutako betebeharrak ez betetzea.*

Aurreko puntuan adierazten ez den beste edozein ez-betetze zigortu egingo da.

Diru-laguntza kentzea ez dakarten ez-betetzeak arinak eta larriak izan daitezke:

*10. Justificación de la acción.*

Una vez recibida la ayuda económica, las entidades beneficiarias deberán presentar al Ayuntamiento la siguiente documentación:

a) Para las acciones de cooperación, realizadas en los países en vías de desarrollo, se deberán presentar obligatoriamente:

1. Justificante de la transferencia económica efectuada a la persona responsable de la ejecución del programa.

2. Memoria detallada del programa o actividad realizada, indicando el impacto de género.

3. Justificantes originales, o fotocopias compulsadas, del gasto efectuado por el importe subvencionado, o declaración jurada y responsable del mismo.

* La justificación del punto 1 se hará en el plazo máximo de 2 meses desde la percepción de la subvención.

* La justificación de los puntos 2 y 3 se realizará antes del 31 de diciembre del año siguiente.

b) Para las acciones de sensibilización que promuevan el interés de nuestra población por la realidad de los países en vías de desarrollo, se deberán presentar antes del 31 de diciembre del año siguiente:

— Memoria detallada del programa o actividad realizada, indicando el impacto de género.

— Justificantes originales o fotocopias compulsadas del gasto efectuado por el importe subvencionado.

*11. Concurrencia de subvenciones.*

La subvención otorgada por el Ayuntamiento es compatible con la percepción de cualquier otra subvención para la misma finalidad.

No obstante, la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, supere el costo de la actividad subvencionada.

En ningún caso, la subvención podrá ser superior al 50% del presupuesto destinado al proyecto que se subvenciona.

En caso de sobrefinanción el beneficiario debera de devolver el importe integro del importe sobrefinanciado.

*12. Pago de la subvención.*

El pago se realizará del siguiente modo:

— El 50% de la subvención a la firma del convenio.

— El 50% restante tras la justificación documentada de los gastos efectuados por el importe subvencionado.

*13. Modificación de la subvención.*

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión.

*14. Revocación de la subvención.*

Procederá la revisión y, en su caso, la revocación de la subvención, en los siguientes supuestos:

a) Obtener la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.

b) Incumplir la finalidad para la que la subvención fue concedida.

*15. Incumplimiento de las obligaciones asumidas.*

Cualquier incumplimiento no contemplado en el punto anterior será penalizado.

Los incumplimientos que no supongan revocación de la subvención se calificarán como leves y graves:

— Larria ez den edozein ez-betetze arina izango da.

— Honakoak izango dira ez-betetze larriak:

— Oinarri hauetako 9. klausulako b, c, d, f eta g puntuetan ezarritakoa ez betetzea.

— Ez-betetze arin bat baino gehiago egitea.

Honako penalizazioak ezarriko dira:

— Ez-betetze arina bada, emandako diru-laguntzaren %25aren arteko penalizazioa.

— Ez-betetze larria bada, emandako diru-laguntzaren %50aren arteko penalizazioa.

Halako penalizazioa interesatuari entzun eta gero ezarriko da.

*16. Araudi osagarria.*

Oinarri hauetan espresuki zehaztuta ez dagoenean, azaroaren 17ko 38/2003 Estatuko Legea eta berau garatzen duen gainontzeko araudiak aplikatuko dira.

ESKAERA EGITEKO EREDUA (*).

Eskaera egiten duen Gobernuz Kanpoko Erakundearen (GKEaren) eta beste aldeko erakundearen datuak.

ESKAERA EGITEN DUEN GKE:

— Datu orokorrak:

1. Eskaera egiten duen Gobernuz Kanpoko Erakundearen izena.

2. Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ).

3. Noiz eratu zen (data).

4. GKEren proiektuaren arduradunaren izena, helbidea eta harremanetarako telefonoa.

5. Dagoeneko burututako hiru garapen ekintza.

— GKEk Azkoitia edo Urola burutzen duen jarduera:

6. Azkoitia edo Urolan buruturiko ekintzak.

7. Azkoitian duen bazkide kopurua.

(Emakumeak ..................... / Gizonak ......................).

8. Urolan duen bazkide kopurua.

(Emakumeak ..................... / Gizonak ......................).

9. Liberatu kopurua Azkoitian.

(Emakumeak ..................... / Gizonak ......................).

10. Liberatu kopurua Urolan.

(Emakumeak ..................... / Gizonak ......................).

11. Boluntarioen kopurua Azkoitian.

(Emakumeak ..................... / Gizonak ......................).

12. Boluntarioen kopurua Urolan.

(Emakumeak ..................... / Gizonak ......................).

13. Proiektura bideratuko diren Azkoitirako - Urolako boluntario edo/eta kooperanteen kopurua.

(Emakumeak ..................... / Gizonak ......................).

— Beste aldeko erakundea:

14. Izena.

15. Noiz eratu den eta buruturiko jarduerak.

16. Helbidea.

17. Proiektuaren arduraduna.

18. Proiektuaren arduradunaren kargua eta esperientzia.

— Se considerará incumplimiento leve el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones no consideradas graves.

— Se considerará incumplimiento grave lo siguiente:

— No cumplir lo establecido en los puntos b, c, d, f y g del punto 9 de estas bases.

— Cometer más de un incumplimiento leve.

Se penalizarán de la siguiente manera:

— incumplimiento leve, con una penalización de hasta el 25% de la subvención concedida.

— incumplimiento grave, con una penalización de hasta el 50% de la subvención concedida.

Tal penalización será impuesta previa audiencia del interesado.

*16. Normativa supletoria.*

Para todo aquello que no se haya establecido expresamente en las presentes bases, se aplicará lo dispuesto en la Ley estatal 38/2003, y su normativa de desarrollo.

MODELO DE SOLICITUD (*).

Datos de la ONG solicitante y de la contraparte.

ONG SOLICITANTE:

— Datos Generales:

1. Nombre de la Organización No Gubernamental solicitante.

2. N.º Identificación Fiscal (NIF).

3. Fecha de constitución.

4. Persona responsable del proyecto en la ONG, dirección y teléfono de contacto.

5. Enumeración de tres acciones de desarrollo ya efectuadas.

— Actividad de la ONG en Azkoitia o en Urola:

6. Enumeración de acciones realizadas en Azkoitia o en Urola.

7. N.º de socios en Azkoitia.

(Mujeres ....................... / Hombres ........................).

8. N.º de socios en Urola.

(Mujeres ....................... / Hombres ........................).

9. N.º de personas liberadas en Azkoitia.

(Mujeres ....................... / Hombres ........................).

10. N.º de personas liberadas en Urola.

(Mujeres ....................... / Hombres ........................).

11. N.º de voluntarios en Azkoitia.

(Mujeres ....................... / Hombres ........................).

12. N.ºde voluntarios en Urola.

(Mujeres ....................... / Hombres ........................).

13. N.º de voluntarios y/o cooperantes de Azkoitia destinados a este proyecto.

(Mujeres ....................... / Hombres ........................).

— Contraparte Local:

14. Nombre.

15. Fecha de constitución y actividades realizadas.

16. Dirección.

17. Persona responsable del proyecto.

18. Cargo y experiencia del responsable del proyecto.

EK\CV GAO-I-2015-06003

— Eskaera egiten duen GKEaren eta beste aldeko erakundearen arteko lotura:

19. Harremana hasi zeneko urtea.

20. Elkarlanean buruturiko proiektuak (zerrendatu gehienez hiru).

— Beste aldeko erakundeak onuradunekin duen harremana:

21. Harremana hasi zeneko urtea.

22. Elkarlanean buruturiko proiektuak (zerrendatu gehienez hiru).

Eskaera hau sinattzen duen ...................................... jaun/andreak (NAN ........................ ) zinpean adierazten du aurkeztatuko datuak benetakoak direla eta hitz ematen du oinarri hauetan ezarritakoa bete eta aurkeztutako proiektuak aurrera eramango dituela.

Halaber, jakinean dago Inprimaki honetako datu pertsonalak Azkoitiko Udalak behar bezala baimendutako fitxeroetan sartuko dituela. Datu horiek bakarrik udal kudeaketarako erabiliko dira, baina beste administrazio publikoei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan. Halaber, datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dudala ondorengo helbidera zuzenduta: Azkoitiko Udala. Herrino enparantza z/g. 20720 Azkoitia.

Azkoitia 2015eko ...............................a.

Sinadura:

(*) Ezinbestekoa izango da ezarritako atal guztiak betetzea, bai GKEri dagozkionak, bai eskatutako diru-laguntzarekin egingo den proiektuari dagozkionak.

PROIEKTUAREN LABURPENA.

— Izena:

— Herrialdea:

— Kokapen zehatza:

— Laburpena: Helburuak, proiektuaren genero ikuspegia zehaztuta, aurrekontua xehea, eta ekintzak garatzen eta antolatzen erabiliko diren bitarteko eta baliabide ekonomikoak eta pertsonalak.

— Nondik sortu den proiektuaren beharra.

— Denbora:

— Proiektua gauzatzeko epea gutxi gorabehera:

— Noiz hasiko den gutxi gorabehera (baldintza bereziren bat kontuan hartzen den zehaztu).

— Noiz bukatuko den gutxi gorabehera.

— Proiektuaren kostu osoa: Derrigorrez eurotan.

— Azkoitiko Udalari eskatzen zaion diru-laguntza zehaztu (eurotan).

— Proiektu berarentzat eskatutako beste diru-laguntza batzuk zehaztu.

— Proiektu berarentzat lortutako beste diru-laguntza batzuk zehaztu.

— Beste aldeko erakundearen ekarpena zehaztu.

— Eskaera egiten duen GKE aren ekarpena zehaztu.

Honako agiriak erantsi:

— Deialdia arautzen duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Eskaera Eredua aurkeztea ezinbestekoa da, bertako atal guztiak beteta.

— Elkarte hori Elkarteen Erroldan irabazi asmorik gabeko erakunde gisa inskribatuta dagoela ziurtatzen duen agiria.

— Relación entre la ONG solicitante y la contraparte:

19. Año en que iniciaron su relación.

20. Enumeración de proyectos realizados conjuntamente (hasta 3).

— Relación de la contraparte con la población beneficiaria:

21. Año en que iniciaron su relación.

22. Enumeración de proyectos realizados conjuntamente (hasta 3).

Don/Dña ..................................... (DNI) .................................. .................. declara bajo juramento que son ciertos los datos que presenta y se compromete a cumplir lo establecido en las presentes bases así como a llevar a cabo los proyectos presentados.

Asimismo, declara que está enterado de que los datos personales contenidos en este impreso serán incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados titularidad del Ayuntamiento de Azkoitia El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal y de que podré ejercer los derechos de acceso, cancelación rectificación y oposición dirigiéndose a: Azkoitiko Udala. Herriko enparantza z/g, 20.720 Azkoita.

Azkoitia, a ............. de ..............de 2015.

Firma:

(*) Será indispensable completar cada uno de los apartados que se señalan tanto en lo referente a la ONG como al proyecto para el que se solicita la subvención.

RESUMEN DEL PROYECTO.

— Título del proyecto:

— País:

— Localización exacta:

— Resumen: Objetivos, señalando la perspectiva de género del proyecto, presupuesto detallado, y medios y recursos económicos y humanos implicados en la organización y desarrollo de la actividad.

— De dónde surge la necesidad del proyecto:

— Temporalización:

— Plazo de ejecución previsto.

— Fecha de inicio prevista (especificar si depende de alguna circunstancia especial).

— Fecha de finalización prevista.

— Presupuesto total del proyecto: Indispensable en euros.

— Detallar la subvención solicitada al Ayuntamiento de Azkoitia (en euros).

— Detallar otras subvenciones solicitadas para el mismo proyecto.

— Detallar otras subvenciones concedidas para el mismo proyecto.

— Detallar la aportación de la contraparte.

— Detallar la aportación de la ONG solicitante.

Adjuntar:

— Será imprescindible presentar el Modelo de Solicitud publicado en el Boletin Oficial de Gipuzkoa, que regule la convocatoria de concesión de ayudas y completar todos y cada uno de los apartados recogidos en el mismo.

— Certificado acreditativo de la inscripción de la asociación en el Registro de Asociaciones como entidad sin ánimo de lucro.

EK\CV GAO-I-2015-06003

— Elkartearen legezko ordezkariaren Ahalmen Notariararen kopia, edo eskaera sinatzen duenak elkartearen barruan duen kargua ziurtatzeko Elkarteen Erroldak egiten duen agiria.

— Estatutu kopia.

— Aurreko urtean burututako jarduerei buruzko Memoria burututako ekintzak, parte-har-tzaileen kopurua, parte-hartzearen maila, interesgarria izan den ala ez, erabilitako bitarteko eta materialak, eta balantze ekonomikoa.

— Udal honetan aurkeztutako proiektuari buruz, beste erakunde edo instituzio batzuei egin zaizkien eskaeren berri eta jadanik eskuratu dituzten beste diru-laguntzen berri ematen duen zinpeko aitorpena.

— Zerga alorreko betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiazta-tzeko ziurtagiriak.

— azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluak, 2. eta 3. ataletan adierazitakoaren arabera diru-lagutza jaso ezin izateko kasuetako batean ez dagoela dioen zinpeko aitorpena.

— Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak adierazitako diru-lagutzak jasotzeko debeku-kasuen pean ez dagoela dioen zinpeko aitorpena.

Azkoitia, 2015eko ekainaren 19a.—Alkatea. (6003)

— Copia del poder notarial del representante legal de la organización o certificado del Registro de Asociaciones en el que se acredite el cargo que ostenta el firmante de la solicitud dentro de la asociación.

— Copia de los Estatutos de la Entidad.

— Memoria de actividades desarrolladas durante el año anterior. Actividades desarrolladas, número de participantes, nivel de participación, valoración de interés, medios y materiales empleados, y balance económico.

— Declaración jurada sobre las solicitudes de subvención formuladas, ante instituciones, organismos, etc., o en su caso de las que estuvieran otorgadas, para el proyecto presentado ante este Ayuntamiento.

— Certificados acreditativos de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

— Declaración jurada de no estar incursa en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones previstas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre.

— Declaración jurada de no estar incursa en ninguna de las causas de prohibición para obtención de subvenciones, de acuerdo con lo establecido por la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Azkoitia, a 19 de junio de 2015.—El alcalde. (6003)

EK\CV GAO-I-2015-06003